

EUSKARA. Bihar egingo dute ituna Kanbon

Iparraldeko zenbait elkarte diruz lagunduko ditu Udalbiltzak

Kulturaldiak, Euskal irratiek, Ikas-Bik eta Euskal Haziak-ek, 850.000 libera jasoko dituzte

Erredakzioa | BAIONA

Udalbiltzako Zuzendaritza Batzordeak -EAJk eta EAK kudeatzen dutena- ia 850.000 libera (21,3 milioi pezeta) emango dizkie Ipar Euskal Herrian euskararen edo euskal kulturaren alde diharduten hainbat elkarteri. Laguntzak jasotzeko hitzarmenak bihar goizeko 11:30ean izenpetuko dituzte, Kanboko Herriko Etxean.

Ikas-Bik jasoko du diru gehien, 400.000 libera hain zuzen ere. Diru horrekin, eskola publikoko sare elebidunak geometria eta matematika testuliburu argitaratuko du. Halaber erabiliko dute dirua *Nanai* aldizkariaren hamar ale kaleratzeko.

Ia 300.000 libera eskuratuko ditu, berriz, Ipar Euskal Herriko

euskarazko irratiek biltzen dituen Euskal Irratiak elkarteak. Dagokion zatia Lapurdiko zenbait lekutan dituen itzalguneak estaltzeko eta entzuleak jasotzen duen emanaldiaren kalitatea hobetzeko erabiliko du Baionako Gure Irratiak, Xiberoako Botzak ere itzalguneak bete nahi ditu eta Irulegiko Irratiak, berriz, bere estudioa txikuntzeko.

Laguntza Kulturaldiari eta eskola katolikoei

100.000 libera jasoko dituzte, aldiz, Kulturaldia eskuko programa kaleratzen duten bost elkarterik: Garazi eskualdeko Garazikusek, Aldudeetako Aldudarrak-ek, Nafarroa Behereko beste eskualdeetako Haize Berrik, Hazparneko Ehiartzeak eta Zuberoako Uhaitzak. Kulturaldia Ipar Euskal Herriko Barnealdeko 15.000 etxetan doan banatzen da eta bertan gertatzen diren kultur ekitaldien berri ematen du.

Azkenik, Euskal Haziak-ek 50.000 libera eskuratuko ditu. Ipar Euskal Herriko eskola katolikoetan ele biko hezkuntza eskaintzen du elkarte horrek.

UNIBERTSITATEA. Bigarren gauz itxialdian daude

EHUko Arkitektura ikasleek greba egingo dute gaur euskarazko klaseak lortzeko

Erredakzioa | DONOSTIA


EHU Euskal Herriko Unibertsitateko Arkitektura ikasleek greba egingo dute gaur euskarazko klaseak exijitzeko. Eguerditik aurrera protesta ibilaldia egingo dute Donostiako kaleetan barrena. Martxa eguerdian hasiko da Ibaetako campusean eta Ondarreta eta Kontxa zeharkatu ondoren, bazkaria egingo dute Bulebarrean.

EHUko Arkitektura eskolako ikasleek itxialdia hasi zuten astelehenean falta diren euskarazko irakasleen kontratazioa eskatzeko. Lehen gauetan 82 lagun itxi ziren fakultateetan eta kopuru handiagoa espero zuten

asteartetik asteazkenerako gauerako.

Protesten bidez, Arkitektura ikasleek salatu nahi dute laugarren mailan euskarazko irakaslerik ez izatea, nahiz eta aurten EHUk euskaraz matrikulatzeko aukera eman zien. EHUko Arkitekturan fakultatean ikasleen %40 matrikulatu da euskarazko adarrean, baina irakaslerik ez, laugarren maila eta hirugarren mailako klase batzuk gaztelaraz besterik ezin dituzte hartu.

Euskarazko adarreko ikasleek ez ezik, gaztelarazkoek ere elkartasuna adierazi dute eta grebarekin bat egin dutela iragarri dute askok.



Euskalteleko 1050arekin askoz ere gutxiago kostako zaizu zure hurkoengandik hurbil egotea. Izan ere, **Euskalteleko dei metropolitarrerkin aurreztu** egingo duzu. Kuotarik gabe, instalaziorik gabe eta zure telefono-zenbakia aldatu gabe.

Jaso ezazu informazioa doan deituz 015era edo hurbilen duzun Euskalteleko zure Salmenta Puntuan.



Euskal tel
batzen gaituena